

The logo for Gertuan Fundazioa features a circular arrangement of light blue dots of varying sizes, creating a textured, organic shape. The text "Gertuan" is written in a large, black, sans-serif font, and "Fundazioa" is written in a smaller, black, sans-serif font directly below it.

Gertuan
Fundazioa

A photograph of an older man with grey hair and glasses, wearing a dark shirt and a patterned jacket, speaking into a microphone at a wooden podium. The podium has a logo and text on it. The background is slightly blurred, showing a large letter 'L' and some text on a screen.

Memoria 2024

Gipuzkoan babesgabetasun egoeran dauden eta
adimen edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen laguntzen diegu.

Morlans Pasealekua 14 Behea | 20009 Donostia | 943 05 10 95 | gertuanfundazioa@gertuanfundazioa.eus



ertuan
1107

Gertuan
Fundazioa

Memoria 2024



Ospakizun urtea izan da pasa berri dugun 2024ko urte hau. Berezia oso, gure fundazioarentzat.

Gipuzkoan, garapen eta/edo desgaitasun intelektualak duten Estatuko lehen “babes” fundazio honek, aurten 40 urte bete ditu. Lau hamarkada, hain zuzen, Gipuzkoan desgaitasuna duten pertsonen eskubideen aldeko defentsan, konpromiso eta dedikazio osoz.

1983tik, fundazioaren sorrera ezkeror, gure elkarteak adimen- eta/edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien bizitza duina eta osoa izatea bermatzeko lan egin du.

Erronka eta aldaketa handiak izan ditugu ibilbide honetan zehar. Erronka eta helburuak betetzeko ordea, fundazioko lan taldearen lan eta gure misioa betetzeko berebiziko ahalegina egiten duten erakundeekin laguntzaren bitartez lortu ditugu.

Urte honetan zehar antolatu ditugun ekitaldietan, 40. urteurrena ospatzean gain, hamarkada hauetako ibilbideari buruzko hausnarketa-prozesu bat egin dugu, gure esku-hartzea hobetzeko, autonomia sustatzeko eta profesionaltasunetik eta hurbiltasunetik laguntza ematen diegun pertsonen bizitza duina eta osoa bermatzeko konpromisoz.



Jarraian, 2024ko gure memoria aurkezten dizuegu, urte honetan zehar egindako lanaren eta erronken laburpena. Hala ere, ez nuke amaitu nahi, aurten zendu den Jose Mari Rubiñosi, 40 urte hauetan zehar gure patronoa izan dena oroitu eta lerro batzuk eskaini gabe. Hamarkada hauetan desgaitasuna duten pertsonen alde, eskaini eta emandako guztiagatik, dihoakio gure eskerrik beroena.

Besarkada handi bat.


Inma Hernández León
Gertuan Fundazioko Lehendakaria




Gure *misioa*

Gertuan Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da eta laguntza ematen die Gipuzkoako Lurralde Historikoan garapen- desgaitasuna eta/edo intelektuala duten eta babesgabetasun-egoeran dauden helduei, beren gaitasun juridikoa gauzatzeko.

Gure esku-hartzea pertsona hauen autonomiaren sustapenean, harreman esanguratsuen sortzean, pertsonarengan oinarritutako plangintzan eta zerbitzuaren kalitatearen neurketan oinarritzen da.







Fundazioaren Historia



1977

Atzegik
"Etorkizuneko
Prestakuntza" programa
jartzen du martxan

2008

Euskadiko gizarte-
zerbitzuen kartera
argitaratzen da eta
tutoretza-zerbitzua
sartzen da karteran

1983

Atzegi Babes Fundazioa
sortzen da



ATZEGI
BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR



2021

8/2021 legea onartzen da, **Gertuan Fundazioa** deitura aldatu eta egoitza lekualdatzen da

2014

Eusko Jaurlaritzak
Fundazioa interes
sozialeko erakunde
aitortzen du



2024ko mugarri nagusiak



Aurkezpena Eusko
Legebiltzarrean
(Vitoria-Gasteiz)
2024ko urtarrilaren
30a eta 31.



40. urteurreneko
hausnarketa jardunaldia eta
40. urtebetetzea ospatzeko
bazkaria, 2024ko martxoan.



Boluntariotza sustatzeko
lankidetzak-akordioa
Uliazpi Fundazioarekin.



Informazio-hitzaldiak
Gipuzkoako adimen-eta/edo
garapen-desgaitasuna duten
pertsonen familia-elkarte
nagusietako familiei.

- Gautena (ekaina)
- Fundación Goyeneche (uztaila)
- Aspace (azaroa)
- Uliazpi (abendua)



Osasun mentaleko
erakundeeekin, Catalunyan,
desgaitasun- unitateko Estatuko
Fiskaltza Nagusiarekin egindako
topaketa batean parte hartzea.



Gipuzkoako Foru
Aldundiarekiko hartu emana
indartzea esku-
hartze eredua zehaztuz,
egungoa berrikusiz eta
gure lankidetza sendotuz.




Datuak

209
PERTSONA


172 Neurri judizialen sistema.
37 Pretutelak / Balorazioan.

Izendatutako kasuen kargu judizialak **Gertuan Fundazioa 2024**






Azken 10 urteetako altak eta bajak 2014 - 2024




Bajak 2024





Datuak

Pertsonak adinaren arabera 2024



"Aditua naizela sentitzen dut. Entzuna naiz eta hori niretzat ezinbestekoa da.

Gainera, laguntzea baina nik eskatzen dudanean, benetan beharra dudala ikustean, asko baloratzen dudan gauzetako bat da."





Elkarrizketa

Miren Igone U. Y.
1992, Irun. (Gipuzkoa)

Noiztik ezagutzen duzu fundazioa?

Gertuan Fundazioarekin harremana, ama hil baina pixka bat lehenagotik daukat. Nire ama, nire tutorea zen eta bazeukan kezka, bera hil ostean, ni nola geratuko ote nintzen. Horregatik, duela bi urte edo, nire ama, herentzia kontuak eta etorkizunerako konpromisoa prestatzen hasi zen Gertuan Fundazioarekin.

Nola bizi zara zu zure egunerokotasunean?

Ama hil zenetik, bakarrik bizi naiz nire etxean. Astean hiru egunetan pertsona bat etortzen da laguntzera eta bazkaria egiten eta etxebizitza txukun mantentzen laguntzen dit. Lanak elkarbanatzen ditut berarekin: afariak adibidez nik egiten ditut, etxez etxeko laguntzaileak garbiketak egiten laguntzen dit eta fundazioko teknikariak berriz, diru kontuak eta tramite administratiboak txukuntzen eta ordenatzen laguntzen dit. Lanean zerbait baldin badut ere hitz egiten dut tarteka.



Zertan behar duzu laguntza?

Gauza batzuk neure kabuz egitea gustatu egiten zait. Niri beti erakutsi didate jendea ez dela beti hor laguntzeko egongo, orduan nire kabuz gauza batzuk konpontzea ere gustatzen zait. Orain Gureaken ere kurtso bat egiten ari naiz eta hor ere independenteak izaten ikasi behar dugula esaten digute.

Daukat banku aplikazio bat eta nik aplikazio hori erabiltzen dut ordainketa batzuk egiteko. Hilabete hasieran diru bat sartzen didate eta horrekin moldatzen ahalegintzen naiz. Gehiago behar badut fundazioko erreferenteari eskatzen diot. Arropa eta erosketak egiteaz printzipioz, ni arduratzen naiz. Medikua eta espezialitate batzuengana laguntzarekin joaten naiz baina erizainarengana adibidez, bakarrik joateko ez dut arazorik.



Eta Fundazioak zertan laguntzen dizu?

Batez ere dirua eta nire ondasunak kudeatzen laguntzen dit Fundazioak. Atzegiko bizitza independentearen laguntza ere badaukat eta guztiek laguntzen naute. Zerbaitek arduratzen banau, Fundazioko erreferentea eta bizitza independenteko kideekin hitz egiten dut.

Pozik zaude Fundazioarekin?

Oso gustura nago Gertuan Fundazioko nire erreferentearekin, lasaitasuna transmititzen dit eta oso jatorra eta atsegina da eta beti irribarre batekin erantzuten dit. Aditua naizela sentitzen dut. Entzuna naiz eta hori niretzat ezinbestekoa da. Gainera, laguntzea baina nik eskatzen dudanean, benetan beharra dudala ikustean, asko baloratzen dudan gauzetako bat da, eta hori Fundazioko erreferenteak beti errespetatzen dit.





Etorkizuneko konpromisoa

Fundazioaren jatorrian eta sorreran familiek zituzten zalantza, kezken artean galdera garrantzitsu bat zegoen:

“Nor arduratuko da nire semeaz edo alabaz ni ez nagoenean?”

Horregatik guztiagatik, Gertuan Fundaziotik, desgaitasun intelektuala eta/edo garapena duten familiei etorkizuna prestatzeko informazioa, aholkua eta orientazioa ematen jarraitzen dugu.

2024ko abenduaren 31n, adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen familiekin eta Gertuan Fundazioarekin formalizatutako etorkizuneko konpromisoak 37 izan dira guztira. 2024ean etorkizunerako bi konpromiso berri sinatu dira.

Datu horiez gain, hasiak gara dagoeneko desgaitasuna duten beste bi pertsona eta hauen familiekin orientazioa eskaintzen eta konpromisoa.





Boluntariotza

Laguntza eskaintzen diegun pertsonekin pertsonen arteko harreman iraunkorrak izatea funtsezkoa da haien ongizate emozionalerako. Lan horrek garrantzi berezia du harreman-sare hain zabala ez dutenengan.

Gure boluntariotza-programaren bidez, desgaitasuna duten pertsonen beren harreman-sarea zabaltzeko aukera eskaini nahi diegu, lotura esanguratsuak sortuz. Honi esker, aktiboki parte har dezakete komunitate eta gizarteko kultura-, jolas- eta kirol-jardueretan, besteak beste.

Gure Fundazioan, laguntza bakoitza pertsonalizatua eta naturala da. Boluntarioek, erakundeko profesionalekin lankidetzan, laguntza-plan bat diseinatzen dute desgaitasuna duen pertsonarekin batera, haien behar eta nahi espezifikoak erantzuteko.

Horrela, boluntariotza-zerbitzua programa garrantzitsua bihurtzen da laguntzen dugunon bizi-kalitatea hobetzeko, gizartean erabateko integrazio esanguratsua bultzatuz.



Boluntariotza programaren helburuak:

- Laguntzak ematen dizkiegun pertsonak giza-harreman positiboak eta aberasgarriak izan ditzaten sustatzea.
- Gizarte justuagoa eta solidarioagoa eraikitzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen gaitasunak gizarteratzea eta hauen eskubideak defendatzea.
- Aurreiritziak ezabatzea.
- Elkartasuna eta parte-hartzea bezalako balioak bultzatzea.

Bestalde, aurten, Uliazpi Fundazioarekin ere, beren boluntariotza sustatzeko lankidetzak akordioa sinatu dugun. Horrela bertako pertsonekin dauden boluntarioen jarraipena egiten hasiko gara 2024tik aurrera.



Bozeramaileen Taldea


Bozeramaileen taldeko parte hartzaileak:

Jose Mari T. - Uxua G. - Aritz E. - Mikel E. - Manuela I. - Arantxa L. - Isabel S. - Arantxa T.

Bozeramaileen taldea Gertuan Fundazioak duela urte batzuk hasi zuen programa bat da. Talde hori laguntza ematen diegun pertsonak osatzen dute, eta espazio hori baliatzen dute beren bizitzan hobekuntzarako buruzko kezkak eta iradokizunak transmititzeko eta adierazteko.

Aurten, 40. urteurrena antolatzeko, bozeramaileen taldeak funtsezko zeregina bete du bazkari-ospakizunaren antolaketan. Ideia berritzaileak bultzatu ditu eta modu aktiboan parte hartu du aurkezpenetan.

2025. urterako, bozeramaile-taldeak helburu berri bat proposatu du: fundazioan sartzen diren pertsona berrientzako ongietorri-plana prestatzea. Plan horrek kide berrien egokitzapena eta ongizatea errazteko jarduerak eta baliabideak hartuko ditu barne, lehen egunetik lagunduta eta artatuak sentituko direla ziurtatuz. Gainera, taldean sortzen diren beharrian eta kezkak lantzen jarraituko du,



Fundazioko kide guztien bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin.

Programa honen bitartez, laguntzak eskaintzen dizkiegun pertsonen fundazioaren gobernu organoa den Patronatuari helarazi nahi dizkioten kezka eta iradokizunak transmititzeko komunikazio-kanal ere izan nahi du.



Gure **Lan Taldea**

Gertuan Fundazioa osatzen duen lan taldea hurrengo hauek osatzen dute:

- Patronatua, 14 patronatukide eta idazkaria.

Profesional-talde bat, honako hauekin:

- Zuzendari 1.
- Ekonomia-arloko arduradun 1.
- Administrari 1.
- 8 teknikari erreferente.
- 2 laguntza-laguntzaile.
- 2 pertsona praktketan.
- Fundazioak azpikontrataturako kanpoko zerbitzu profesionalak (aholkulari juridikoak, auditoreak, ikerketa aplikatuko aholkulariak, etab.)





*Prestakuntza eta **Etengabeko Hobekuntza***

Urtero bezala, Gertuan Fundazioan, oso garrantzitsua da lan taldearen etengabeko formazio-prestakuntza. Honek eskaintzen duen garapen profesionalaz haratago, eskaintzen ditugun laguntzak, modurik eta onenen eta eraginkorren, eta unean uneko berrikuntzetara egokitutakoak izan behar dutela uste dugu.

Horregatik guztiagatik, eta etengabeko hobekuntza sustatzeko helburuarekin, Plena Inclusión Euskadi eta Liber erakundeekin dugun lankidetzeta eta bazkidetzeta ezinbestekoa izan da.

Hona hemen Gertuan Fundazioko lantaldeak 2024an egindako ikastaro, jardunaldi eta prestakuntzen zerrenda:

- ***«Laguntza onak adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonentzat, hauskortasun aurreratuko eta bizitzaren amaierako egoeretan»*** kasu prototipikoan parte hartzea.
- ***Pazientearen autonomiari eta desgaitasun intelektuala duten pertsonen gaitasun juridikoari buruzko legea.***
- ***Komunitateen garapena konektore komunitarioen bidez.***



- ***Etika laguntzak ematerakoan.***
- ***Irisgarritasun kognitiboa laguntza-premia handienak dituzten herritarrentzat.***
- ***Alzheimerreko*** prestakuntza.
- ***Esku-hartze sozialari aplikatutako bioetikari*** buruzko ikastaroa.
- ***Jokabide suizida: prebentzioa eta esku-hartzea.***
- ***Desgaitasuna duten pertsonen tratua txarrak ematea, haien duintasuna ez aitortzeagatik: ulertzea, prebenitzeko.***
- ***Adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako langileei laguntza ona ematea.***
- ***Generoaren eta desgaitasunaren*** arteko topaketa.
- ***Diabetesari*** buruzko prestakuntza.



Elkarrizketa

Sebas O. E.

1960, Zizurkil. (Gipuzkoa)

Non bizi zara eta non bizi izan zara, Sebas?

Txikitan Fraisoron bizi izan nintzen Zizurkilen, Kako, Retegi eta Eduardo Barandiaranekin. Atzegi Babes Fundazioko lehenak izan ginela uste dut.

18 urtetatik ordea, Atzegiko pisuetan bizi naiz, begirale eta sukaldariarekin. Lehenengo Ikaztegietan eta gero Tolosan.

Lagun batekin bizi naiz, Patxirekin. Urte asko daramatzat berarekin eta, egia esan, oso pozik nago. Lehen Tolosako plaza berrian bizi nintzen, baina orain alde zaharrean bizi naiz, txaranga eta elkarte gastronomiko guztiak dauden lekuan bizi naiz eta hori asko gustatzen zait, festaren erdigunean bizi naiz. Aste barruan etxekoandre bat etortzen zaigu janaria prestatu eta garbiketarekin laguntzera, eta astearteetan monitore bat etortzen zaigu. Berarekin paga kontuak eta «Mugi» txartelarekin ere laguntzen dit besteak beste.



Noiztik ezagutzen duzu fundazioa?

18 urterekin ezagutu nuen fundazioa. 1980ko hamarkadatik daramat fundazioarekin. Gogoan dut epaitegira joan nintzela paper eta administrazio kontuekin laguntzeko.

Oso harreman ona dut nire erreferente teknikoarekin. Oso alaia da, irribarretsua, eta, gainera, gauza askotan lagundu izan didate, arropa erosten...

Duela gutxi ere erretiroa hartu dut eta erretiroko tramiteekin ere lagundu didate, Gureaken urte luzez lan egin ostean, orain Garagunera joaten naiz. Ekintza eta gauza mordoa egiten ditut.



Nolakoa da zure eguneroko bizitza, Sebas?

Asteaz zehar Garagunera joan ohi naiz eta hor jarduera asko egiten ditut: lagun batekin gosaltzera joaten naiz, patata tortilla egiten dugu, irteerak, asanbleak... Arratsaldeetan berriz, jubilatuen tabernara joaten naiz kafe bat hartzera eta gero «Usabal» kiroldegira joaten naiz.

Usabalen entrenatzaileei laguntzen diet. Ni ere nesken futbol entrenatzailea naiz Izarorekin batera. Urez betetzen ditut botilatxoak, ordenatu, haiekin joaten naiz futbol-partidetara. Burgosera, Valladolidera, pila bat leku ezagutzen ditut. Aste Santuan Saloura (Tarragona) joango naiz. Omenaldiak ere egin izan dizkirate Tolosan, futbol taldea laguntzeagatik. Tolosako futbol taldeko kide bat gehiago naiz.

Zer moduz zaude erretiroa hartuz geroztik?

Orain askoz lasaiago bizi naiz erretiroa hartu nuenetik, eta etorkizunean horrela egon nahiko nuke, lasai, Tolosan. Tolosa nire etxea da.

**"erretiroko tramiteekin
ere lagundu didate.**

**Gureaken urte luzez
lan egin ostean, orain
Garagunera joaten naiz.
Ekintza eta gauza mordoak
egiten ditut."**



Emaitzen kontua

	2024	2023
Jarduera propiogatikoak erakundearen diru sarrerak	789.104 €	663.662 €
Ustiapeneko beste diru sarrera batzuk	39.441 €	43.372 €
Pertsonal gastuak	611.148 €	546.369 €
Ustiapeneko beste gastu batzuk	190.873 €	133.656 €
Ibilgetuaren amortizazioa	42.897 €	42.897 €
Ekitaldiko emaitzara transferitutako kapital diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	21.123 €	21.123 €
USTIAPENAREN EMAITZA	4.750 €	5.235 €
FINANTZA EMAITZA	-3.591 €	-2.004 €
EKITALDIKO EMAITZA	1.159 €	-20.594 €
EKITALDIKO EZOHIKO EMAITZA	-	3.231 €

Kontu hauek, Sayma Auditores S.L. kanpo enpresak, 2025eko martxoan auditatutako kontuak izan dira.

Beste urte batez, **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** laguntza ekonomikoarekin jarraitu dugu, gure jardueraren finantzaketa-iturri nagusia baita. Bestalde, **Laboral Kutxa** eta **Irungo Udalak** emandako laguntza ere azpimarratu nahi dugu.







40° URTEURRENA *Ospakizunak*

Gertuan Fundazioaren 40. urteurrenaren ospakizunen baitan, hainbat jarduera antolatu ditugu 2024an zehar; bai gure ibilbidea ospatzeko, baita egindako biderei eta etorkizuneko erronkei buruz hausnartzeko ere.

Ospakizunen artean, martxoaren 13an, **UPV/EHUko Carlos Santamaría** zentroan, fundazioek gaitasun juridikoa gauzatzean ematen ditugun laguntzei buruzko jardunaldi bat antolatu genuen, adimen- eta/edo garapen-desgaitasuna duten pertsonei ematen dizkiegun laguntzen ereduari buruz hausnartu ahal izateko.

Jardunaldi horretan, hirugarren sektoreko erreferentziazko erakundeek parte hartu zuten hizlari gisa, eta, horrela, gure erakunderako funtsezkoak diren gaiei buruz duten ikuspegia partekatu ahal izan genuen. Parte hartu zutenen artean, **GFA-DFGko zainketa eta gizarte-politikako departamentua, Euskadiko Auzitegi Nagusiko Iñaki Subijana** presidentea, **Atzegi gure fundazioaren erakunde fundatzailea, eta Hurkoak** izan ziren.





Hausnarketa-jardunaldi horretan, lau hamarkada hauetan gure lana gidatu duten balioei eta helburuei buruz hitz egin zuten kide eta kolaboratzaileek, baita etorkizunean aurrera egiten jarraitzeko ditugun erronkei buruz ere.

Bestalde, **bazkari-ospakizun bat antolatu genuen 2024ko martxoaren 16an**. Bertan elkartu ginen laguntzak eskaintzen dizkiegun eta desgaitasuna duten pertsona guztiak, baita erakundeko eta Patronatuko kide eta gure erakundearekin kolaboratzen duten boluntarioak ere. Bertan bazkari eder batekin ospatu ahal izan genuen. Musika, dantzak eta bestelako ikuskizunak ere ez ziren falta izan.

40. urteurren hau, iragana ospatzeko ez ezik, etorkizunarekin dugun konpromisoa berresteko aukera izan zen, desgaitasun intelektuala edo/eta garapenerako desgaitasuna duten eta Gipuzkoan babesgabetasun egoeran dauden pertsonen ongizatean laguntzeko gure ikuspegia eta nahia sendotuz.

Lerro hauetatik, ekitaldi hau antolatzeko laguntza eskaini zigun Once Fundazioari, eskerrak luzatu nahi dizkiogu.





40. urteurren honetan, eskerrak eman nahi dizkiegu **Gertuan Fundazioarekin** batera, bidelagun izan diren entitate, erakunde eta erakunde guztiei.

Hauen konpromisoa eta lankidetzeta funtsezkoak izan dira gure lana ahalbidetzeko, baita laguntzak eskaintzen dizkiegun pertsonen bizi-kalitatearen hobekuntzan eragiten jarraitzeko ere.

Ibilbide honetan lagundu diguzuen erakunde, profesional eta pertsona boluntario bakoitzari eta guztiguztiei, esker mila gure misioan sinesteagatik eta bide honetan parte aktibo izateagatik.

Zuen laguntza funtsezkoa izan da eta da guretzat, eta, batez ere, desgaitasun intelektualak edo garapenekoak duten eta babesgabetasun-egoeran dauden pertsonentzat. Zuei esker dute pertsona hauek AXOLA DIEN NORBAIT.

Partaide garen erakundeak:

liber Asociación de entidades de apoyo a la toma de decisiones

FEVAS
Plena
inclusión
Euskadi